



Europako Batzordea

# EUROPAREN ETORKIZUN DIGITALA PRESTATU

2020ko otsaila  
#DigitalEU

Denok bizi dugu eraldaketa digitala geure bizitzetan. Eta EBren estrategiak enpresetara eta planeta osora eramango du errealitate hori, EBren balioekin bat eginez, betiere de la UE.

## Nori egingo dio mesede EBren estrategia digitalak?



### EUOPAR GUZTIEI

Teknologiak herritarren ohiko bizimodua hobetuko du.



### ENPRESEI

Enpresak bidezko balditzetan sortu eta haziko dira, berrituko dute eta lehiatuko dira.



### PLANETARI

Teknologia digitalek klima-neutraltasuna lortzen lagunduko diote EBri.

## Zer egingo dugu?

Teknologia pertsonen zerbitzura

Ekonomia digital bidezkoa eta lehiakorra

3  
JARDUERA-  
-BIDE


Gizarte irekia,  
demokratikoa  
eta jasangarria

## 1 Teknologia pertsonen zerbitzura

- ▶ Gaitasun digitaletan inbertitzea europar guztientzat;
- ▶ Pertsonak mehatxu zibernetikoetatik babestea (pirateatzea, bahiketa-programak, nortasun-lapurretak, etab.);
- ▶ Adimen artifiziala pertsonen eskubideak errespetatuz garatzen dela eta haien konfiantza merezi duela bermatzea;
- ▶ Banda zabal ultraazkarraren hedapena bizkortzea EB osoko etxeetan, eskoletan eta ospitaleetan;
- ▶ Europak medikuntzan, garraioetan eta ingurumenean irtenbide berritzaileak garatzeko duen superkonputazio-gaitasuna handitzea.

## 2 Ekonomia digital bidezkoa eta lehiakorra

- ▶ Sortzen ari diren enpresa eta ETE berritzaile eta hazkunde azkarrekoek finantzaketa lor dezaten eta hazi daitezen ahalbidetzea;
- ▶ Zerbitzu digitalen lege bat proposatzea, plataformen erantzukizuna indartzeko eta *online* zerbitzuei aplikatu beharreko arauak argitzeko;
- ▶ Ekonomia digitalean EBko arauak beren asmoetara egokitzen direla bermatzea;
- ▶ Europan enpresa guztiak bidezko baldintzetan lehiatzen direla bermatzea;
- ▶ Kalitate handiko datuetarako sarbidea hobetzea eta, aldi berean, datu pertsonal eta sentikorren babesa bermatzea.



## 3 Gizarte irekia, demokratikoa eta jasangarria

- ▶ Teknologia erabiltzea Europari gaurtik 2050era klimatikoki neutroa izaten laguntzeko;
- ▶ Sektore digitaleko karbono-isurketak murriztea;
- ▶ Herritarrak ahalduntzea, beren datuen kontrol eta babes hobea izan dezaten;
- ▶ Osasunari buruzko datuen Europako espazio bat sortzea, ikerketa, diagnostikoa eta tratamendu espezifikoak bultzatzeko;
- ▶ *Online* desinformazioaren aurka borrokatzea eta komunikabideetan edukien aniztasuna eta fidagarritasuna sustatzea.



5G

## Europa munduko liderra



### EB:

- ◆ Ekonomia digitalaren **munduko eredu** bihurtzen saiatuko da;
- ◆ **Garapen bidean dauden ekonomiak** digitalizatzen lagunduko du;
- ◆ **Arau digitalak egingo ditu** eta normalizazio hori nazioartean bultzatuko du.

© Europar Batasuna, 2020

Berrerabilera baimendua, iturria aipatuz. Europako Batzordearen agiriak berrerabiltzeko politika hemen ezartzen da: 2011/833/EB Erabakia (DO L 330, 2011ko abenduaren 14koa, 39. orria). Europar Batasunaren jabetzakoak ez diren elementuak erabili edo erreproduzitzeko, beharrezkoa izango da eskubideen titularrei zuzenean baimena eskatzea.

Irudi guztiak © Europar Batasunarenak.

Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2020ko ekaina

Ale-kopurua: 170 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Admmistrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián. 1 - 01010 - Vitona-Gasteiz

Inprimaketa: PRINTHAUS, S.L.

Lege-gordailua: LG G 00371-2020



LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco